

Larrun

230

www.argia.eus/larrun



Marina Garcés
FILOSOFIA ERRADIKALA
GARAI POSTUMOETAN

“Borroka konkretu bakoitzean guztia dago jokoan”

Idia sakonak ulergarri eta ukigarri egiteko gaitasun harrigarria dauka Marina Garcés filosofo kataluniarrak (Bartzelona, 1973), pentsamendua eguneroko bizipenekin konektatzeko argitasuna; eta bizi ditugun garai nahasi hauetan, jarrera bat: eraldaketaren aldeko apustua egiten dutenekin bilduta, erantzun erabatekoak baino, galdera berriak planteatzekoa. Zaragozako Unibertsitatean filosofia klaseak ematen ari da azken urteetan eta 2002tik bultzatu du Espai En Blanc proiektua ere, zeinaren helburuak diren pentsamendu kritikoa sustatzea eta filosofia eta ekintzaren arteko aliantza berriak imajinatzea. *Nova il·lustració radical* (Anagrama, 2017) eta *Ciutat Princesa* (Galaxia Gutenberg, 2018) liburuak argitaratu ditu duela gutxi, bi liburu garrantzitsu, lehenbizikoak diagnostiko zorrotza egiten diolako momentu historiko honetan askok sentitzen dugun inpotenziari –“dena dakigu, baina ezin dugu ezer egin”– eta egoera horri aurre egiteko apustu bat jartzen duelako mahai gainean: sinesbera izateari uztea, gure buruak bestela pentsatzen ausartuz. *Ciutat Princesa*-n berriz, 1996ko Princesa zinemaren okupaziotik abiatuta, azken bi hamarkadetan bizi izan dituen esperientzia politikoen kronika filosofiko eta bitala idatzi du. Autobiografia politiko bat, kontatzen duena hiri baten transformazioa eta han bizi direnena, globalizazioaren kontrako mugimenduetatik hasi eta Bartzelonaren turistifikazioaren aurkakoetarinaino iritsiz, 2017ko urriaren 1aren erreferendumetik pasata, besteak beste. Bi lan horiek oinarri hartuta egin diogu jarraian irakur dezakezuen elkarrizketa. Erantzunetan, gure buruari galdera berriak egiteko oinak eman dizkigu.

■ **Testua: Pablo La Parra Pérez / Gorka Bereziartua Mitxelena**
Argazkiak: Oriol Clavera

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia, 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.596. zenbakiarekin banatua, 2018ko apirilaren 29an)





“Rojavako iraultzaren atzean dagoen filosofia” izeneko jardunaldietan parte hartu ondoren elkartu da gurekin Marina Garcés, Bartzelonako CCCB kultur guneko kafetegian. Goiz lainotua da apirilaren 7ko hau Kataluniako hiriburuan, baina hala ere jendetza bildu da herri kurduarekin elkartasuna sustatzen duen Azadi plataformak antolatutako hitzaldi-sortara. Kurduen esperientziak hemen, momentu honetan, interesa pizten du, ez dago dudarik. Jardunaldia abiatzeko eman duen hitzaldian, Garcések adierazi du ez dagoela iraultzarik filosofiarik gabe, ezta filosofiarik ere, transformazio erradikalik gabe. Eta Rojavako esperientziari buruz azpimarratu du ez dela hutsaren gainean garatutako kontzeptu abstraktu bat, zerbait konkretua baizik, pro-

blema amankomunei elkarrekin aurre eginez aurrera doana. Teoriaren eta praktikaren arteko harreman horretaz asko du esateko, elkarrizketa osoan konektatuko ditu pentsamendua eta esperientziak, ideiak eta bizipenak: bizitza eraldatzen duen pentsamendua, pentsamendua eraldatzen duen bizitza.

***Ciutat Princesa* liburuan aipatzen duzu, Michel de Certearen hitz batzuetatik abiatuz, krisi guztiek ateratzen dutela argitara gizartean nolabait latente zegoena. Kataluniako egoera kontuan hartuta, baina baita errefuxiatuen krisi globala ere, eskuin muturreko alderdien gorakada... Azken urteetan bizitzen ari garen krisi sorta hau zer ari da argitara ateratzen?**

“

Beste modu batera pentsa dezakegu bakarrik beste modu batera bizi baldin bagara, eta beste modu batera biziko gara soilik ausartzen bagara horrekin batera beste modu batera pentsatzen”

Esango nuke sakoneko krisi beraren aurpegi diferenteak direla, elkarren gainean jarrita: bizi dugun sistema ekonomiko eta politikoaren zibilizazio-mugen bizipena. Kapitalismo globala fase batean dago non, mugarik gabe hedatzen jarraitu beharrean, berak sortzen dituen mugak gainditu behar dituen etengabe. Argi dago ingurumenarekin lotutako mugak direla begi-bistakoenak, baina muga politiko eta instituzionalak ere agertzen dira: kapitalismo klasikoa estatu-nazioari lotuta zegoen, hura zen mundua artikulatzen zuena, merkatu nazionalen eta kolonialen osatutako mundu bat. Horrek aberri-atzerri dinamika bat zeukan, barruan-kanpoan, erauzketa eta manufaktura... Dinamika sorta bat, ez dena hain agerikoa gaur egungo kapitalismoaren fasean. Eta XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran globalizazio deitu genion ideia hura ere –merkatuek jada mundua globalizatu zutela eta estatua aurreko ordenatik irauten zuen hondakin bat besterik ez zela–, kontraesanean sartzen hasi da.

Horrekin lotuta, *Nova il·lustració radical* lanean mugaz eta amildegiaz hitz egiten duzu, baita apokaliptiak eragiten duen liluraz ere. Esplikatzeko duzunez, erabateko suntsipenetik pasatzen ez den etorkizunen bat imajinatzeko ezintasunak gidatzen du lilura hori. Arreta deitu digu azkenaldian, Trump edo Le Pen bezalako fenomeno neofaxistak ikusita, Slavoj Žižek bezalako pentsamendu kritikoaren sinboloak ikustea esaten, funtsean, notizia ona direla halakoak, sistemaren kontraesanak

larritu ahala hura eraldatzeko baldintzak ere sortuko direlako. “Zenbat eta okerrago, hobe” dioen logika hau paralisi apokaliptikoaren bertsio bat da?

Paralisi apokaliptikoa, egiatzki, irudimenaren paralisia da. Emantzipazioa bilatzen duten politikak beti izan dira irudimena ereiteko lekuak: irudimen politikoa, gainera irudimen kulturala ere badena, irudimen estetikoa, afektiboa... Bestela bizitzeko moduak imajinatzeko aukera ematen dizun guztia, baita, mutur utopikoraino eramanda, beste munduak ere. Apokalipsia erabiltze honek, bai botere faktikoen aldetik, euren beldurraren estrategiarekin, baina baita kapitalismoaren heriotza iragartzen dutenen aldetik ere, funtsean horixe adierazten du: irudimen politiko emantzipatzailearen paralisia. Eta horregatik nire apustu hau, ilustrazio erradikalaren iturriak bilatzera joatekoa, zeinak ez diren munduaren modernizazio kapitalistaren oinarriak, guztiz kontrakoa baizik: idatzita dauden etorkizunen aurrean gure burua disonantzian pentsatzeko posibilitatea.

Intelektualaren ideia jakin bat ere auzitan jartzen duzu azken bi liburuetan: alienazioaren atzean dagoen egia erakusteko misioa duen figura hori, alegia. Pentsamenduaren alorrean egiten duzun apustuaren parte bat, teoriaren eta praktikaren arteko harreman hierarkikoa haustean datza?

Bai, eta ez bakarrik helburu gisa, baldintza gisa ere bai. Politikoki eta filosofikoki formatu nauen

“

Munduaz esperientziarik egitea ezinezko bihurtzen ari da. Gertakariak kontsumitzen ditugu, informazioak, jakintzak... baina ez dute esperientziarik sortzen eta esperientzia da eraldatzen zaituena”

“

Nire idatzien apustu nagusietako bat “gu” esaten ikastea da, pentsamendu amankomuna eraikitzeke modu bakarria problema amankomunak lantzea delako”

ikasketa nagusienetako bat izan da, hain justu, bizi izatea eta egotea teoriaren eta praktikaren arteko harreman banaezin horretan, ez bakarrik ikasgeletan eta liburuetan, baita kolektiboetan izan dudana esperientzian eta mugimendu soziale-tan ere. Horrek ez du esan nahi teoria guztiak ekintzara pasa behar dutenik edo alderantziz; esan nahi du, hain zuzen, beste modu batera pentsa dezakegula bakarrik beste modu batera bizi baldin bagara, eta beste modu batera biziko garela soilik prest baldin bagaude, ausartzen bagara, hori egitearekin batera beste modu bate-ra pentsatzera. Egitea den pentsatze hori, pentsatzea den egite hori. Hori niretzat ikaskuntza bizia da, ez da irakurketa batzuetatik etorri den zerbait, urte askotako esperientzia politikotik baizik, bizitza eraldatzen duen pentsamendu honekin esperimentatuzetik, pentsamendua eraldatzen duen bizitza honetatik. Hori da niretzat filosofia, bizitzako konpromiso gisa ulertuta, bai pertsona-la, bai kolektiboa.

Noski, horrek intelektualaren lekua erabat aldatzen du. Aldatzen du, kontu politikoengatik: beste leku batean kokatzen zara garen horreki-ko. Eta, adibidez, ez dizu uzten hirugarren per-sonan hitz egiten, jasan ezin dudana gauza bat, baina oso hedatua dagoena intelektual kritiko askoren artean, zeinak beti ari diren “haiek” edo “jendea” aipatzen. Askotan debateetan parte hartzen dut eta ondoan norbait hiruga-rren pertsonan “jendea”-ri buruz hasten denean pentsatzen dut: nortzuk dira beraiek? Zergatik ez ikasi “gu” esaten? Hori izan da nire idatzien

eta nire apustuen hari nagusietako bat. “Gu” esaten ikastea. Ez bestearen identitatea harrapa-tzen saiatzeko, guztiz kontrakorako baizik: pentsamendu amankomuna eraikitzeke modu bakarria problema amankomunak lantzea dela-ko. Ez dute zertan problema bera izan, auzi bera, bai ordea amankomunean hartzeko jarre-ra. Horrek jartzen zaitu leku batean non prakti-ka intelektuala eta kritika egitea kokatzen diren konplizitatearen eta aliantzaren esparruan. Eta beraz, ez dago jakintzaren eta egia-riaren monopo-liorik. Eta horrek asko molestatzen dio intelek-tual askori, baita intelektual izan nahi duten beste askori ere.

Iruditu zaigu zure azken liburuan iraganari begira-tzeko maiz erabiltzen dugun logika utilitarista auzi-tan jartzen duzula, alegia, uko egiten diozula iraga-neko borrokak “arrakasta” edo “porrot” terminoetan baloratzeari. Birpentsatu ditzakegu borroka sozialak lortu zutenari begiratzat baino, ireki zituzten posibilitateei erreparatzat?

Ciutat Princesa izaten bukatu duten idatzi hauen oinarria lantzen hasi nintzenean, galdera hona-koa zen: zer kontatu nahi duzu? Hau da: konta-tzeko beharra gauza bat da, bizi izandakoa kon-tatzeko behar humanoa daukagulako. Baina, bizi izandakotik zer kontatu nahi duzu? Ez zitzaidan interesatzen balantze bat egitea garaipen eta porrotena, arrakasta eta frakasoena. Baina orduan, zertarako kontatzen duzu kontatzen duzuna? Jabetu nintzen niretzat kontu funda-

“

Zer irabazi dugun eta zer galdu baino, bizi izandakoaren transformazio-efektuen arrastoei segitzea garrantzitsuagoa da niretzat. Zertan eraldatu gaitu bizi izandakoak? Atzera bueltarik ez daukan zerbait egotekotan, hor dago”



mentala zela, zertan irabazi dugun eta zertan galdu baino, bizi izandakoaren transformazio-efektuen arrastoei segitzea. Zertan eraldatu gaitu bizi izandakoak? Galdera hori oso hasieran agertzen da: zer gertatu zaigu, zentzu sakon horretan; zertan eraldatu gara eta zertan jarraitzen dugu eraldatzen.

Honek guztiak harreman handiagoa dauka nire ustez ikasketekin, konkistekin baino. Badago epika iraultzaile eta emantzipatzaile oso bat, zeina oinarritzen den, oraindik, konkistaren hizkeran. Eta konkista sozialak oso ondo daude, baina konkisten beste aldea porrotak ere badira. Kontatu nahi izan dudana, politikoki horretan askoz gehiago sinesten dudalako, zera da: borro-

ketatik, esperimentazioetatik, ikasketetatik... horien bizipenetatik datozen transformazio subjektiboak. Uste dut bizi izandako gauzetan atzera bueltarik ez daukan zerbait baldin badago, hor dagoela, ez gertakari objektiboetan. Azkenaldian harrapatuta gaude “iraultza-kontrairaultza” bezalako ideietan, “erreforma-kontraerreforma”, edo orain, M15az geroztik, matxinadamomentuak irekitzen eta ondorengo inboluzioak jasaten. Geroz eta azkarrago txandakatzen dira dinamika horiek gainera. Bitartean, barruan, desplazatzen ari dira ertzak, mugak, mundua ikusteko moduak, eta horiek bai ari direla eraldatzen. Uste dut eraldaketa horiei erreparatzeak ematen dizkigula gakoak gure gaurkotasanari buruzko irakurketa politiko oso diferenteak egiteko.



“

Pentsamendu kritikoaren lana, nire ustez, ez da hainbeste errealitatea epaitzea, baizik eta bereizkuntza lan oso fin bat egitea, diskriminatzea, doitu gabeko gauzak doitzea”

Horrek bat egiten du *Nova il-lustració radical*-eko pasarte batzuekin, iraganari begiratzeko baitiozu, ilustrazioaren proiektu handiari, baina proiektu hark izan zituen porrotak seinalatzen dituen logikan erori gabe. Horren ordez, ilustrazioak ekarri zituen erremintak zorrotzen saiatu zarela dirudi. Zer nolako balioa du iraganari horrela begiratzeak? Nola hartu ditzakegu berriz eskuan emantzipazio kritikoa bezalako kontzeptuak, behin zorrotzuta?

Nire azkeneko bi liburuak lotu dituzue iraganari begirako ariketa balira bezala, eta egia da badirela, baina ez dakit horrela esango ote nukeen. Agian benetako asmoa zelako, iraganari begiratzeko baino, aurreko liburuan [*Filosofía inacabada*] “bukatu gabekoa” deitzen nion horri erreparatzea, oso Walter Benjaminen edo Gilles Deleuzeren ildokoa dirudien zerbait. Ideia bat, esaten diguna gure oraina osatuta dagoela gertatu ez denaz, mundu honen eraikuntzan tokirik izan ez duenaz. Edo, zehatzagoak izateko, *Ciutat Princesa*-ren amaieran diodan moduan, osatua dagoela gauzak honela izatearekin ados egon ez diren guztiez.

Leku batean jarrita ez dagoen hori guztia, eguneratu gabe dagoena, gertatu ez dena, tokirik ez daukana, ez dut porrot gisa ulertzen, hariak dira, eta denboran zehar haien bila joan gaitezke, bai iraganean, bai orainean. Eta horrek etorkizuneko oroitzapenak ematen dizkigu, *Ciutat Princesa*-ren amaieran aipatzen ditudan horietan. *Nova il-lustració radical*-en amaierako irudia berreskuratuz, “ehule intsumisoak” horiek dira. Eta uste dut

hori egiten dudala nire azken lanetan: denbora ehundu esperientzia lantzeko, uste dudalako gure garaiko gerretako bat esperientziaren kontra egiten ari direla. Hau ere Benjaminek esaten zuen eta kondizio garaikide bat da: munduaz esperientziarik egitea ezinezko bihurtzen ari da. Gertakariak kontsumitzen ditugu, informazioak, jakintzak... baina ez dute esperientziarik sortzen eta esperientzia da eraldatzen zaituena, eta gainera, transmititu daiteke eta berreskuratu. Informazioak esaten digu: “Hau gertatu da”. Eta, bai, zer edo zertaz enteratzen zara, baina nola sortzen duzu esperientziarik hortik? Nire ustez, baldintza da denborak elkar jostea, horrek bai ematen dizkigula erreminta zorrotzak. Liburuaren gaztelaniazko edizioan ez nekien ondo nola jarri “zorrotzuta” hori [*“afilar”* gaztelaniaz], nahastu egiten nituen “zorrotzuta” eta “afinatu” [*“afinar”* gaztelaniaz] eta ez dakit azkenean zein jarri nuen. Ehule intsumisoen irudiarekin bat eginez jarri nuen “erreminta zorrotzak” behar genituela, orratzak neuzkalako buruan. Baina era berean “afinatuak” ere baziren, fin-finak izan behar zutelako. Baita afinatuak zentzu musikalean ere, esan nahi dugunaren erregistroarekin asmatu behar delako. Eta nire ustez hori da, funtsean, pentsamendu kritikoaren lana, ez hainbeste errealitatea epaitzea edo auzitara eramatea, baizik eta bereizkuntza lan oso fin bat egitea, diskriminatzea, doitu gabeko gauzak doitzea; eta horretan erreminta hauek badute zereginik.

“Bukatu gabekoa” aipatu duzunez, M15 mugimenduari buruz diozu inflexio puntua izan zela, imajinario kolektiboari ekarri zizkion erreferenteak agian desbideratu bai, baina ez direlako agortu. Zer da M15etik agortu gabe dagoena? Non bila ditzakegu fenomeno hark utzitako arrasto biziak?

“

Botere baten lekua bilatzen dut, boterez hustuko duena boterea bera”



Politika itzuli denean, itzuli da subiranotasunaren lehia ere: nork erabakitzen du zer? Hori da politikaren funtsezko galdera”

Nire ustez zabaldu zuen espresio ezagunenetarikoa batean: “Ez gaituzte ordezkatzen”. Agian fase batean gaude, zeinean “ez gaituzte ordezkatzen” hori alderantzikatu den: ordezkatzen ez gaituztenez, indartsuenari ematen diogu botoa; eta hori ere izan daiteke “ez gaituzte ordezkatzen” esaldiak daukan aurpegietako bat. Baina ez dut uste inor ordezkatua sentitzen denik alderdi batekin zeinari talde kriminala izatea leporatzen dioten –alegia, PP–. Instituzio politiko batzuen eta politika ekonomiko batzuen legitimaziorako balio zuen mekanismo hori guztia hautsi da. Baina hautsita egoteak ez du esan nahi hortik zerbait ona aterako denik. M15ak haustura hori izendatu zuen, kontsentsuen amaiera. Jada ez du balio ezta Espainiako Trantsizioko “kalterik txikienaren” logikak ere: horrek jada ez gaitu deitzen.

Horrek hutsune bat ireki zuen, pitzadura bat, oso forma diferenteekin adierazi zena. Era berean, norabide bat apuntatu zuen, eta hor uste dut badaudela arrasto txiki batzuk, adibidez, “ez gaituzte ordezkatzen” esateak ez duela esan nahi publikoa dena ez dela gurea. Uste dut M15etik ahaztu den zerbait dela hori, eta oso garrantzitsua izan zen. M15arekin eta Mareekin funtzionatu zuen eta zen, hain justu, esan zitekeela krisiaren eta ustelkeriaren aurrean –M15aren lorpen handietako bat izan zen krisia eta ustelkeria uztarri berean sartzea–, osasungintza gurea dela, “eskola gurea da”, “hau ez duzue ukituko”... Gurea delako, ez zuena. Plano horretan uste dut boterearen deslegitimazioak eusten diola oraindik, baina haren instrumentalizazio bihurtuta.

Bestalde, oso gutxituta geratu da publikoa denaren birjabetzea, “publikoa baina ez estatuarena” gisa ulertuta, nahiz eta zenbait geruzatan bizirik jarraitzen duen, adibidez ekonomia sozialarenean edo, Katalunian oso nabarmen, eskola publikoaren defentsarekin lotuta. Baina uste dut iparra galduta bezala dagoela, desproporzio ikaragarria dagoelako publikoa eta amankomuna dena jasaten ari den higaduraren eta hura defendatzeko dauden aukera konkretuen artean. Baina hor dago eta niretzat gakoa da. *Ciutat Princesa*-ren amaieran horrantz jotzen dut, nola egin publiko publikoa dena, eta horrek esan nahi du, segur aski, desestatalizatzea, baina ez marjinalizatzea.

90eko hamarkada amaierako eslogan bat aipatzen duzu liburuan: “Kontsentsua zentsura da dena esan daitekeenean”. Orain aldiz, badirudi zentsuraren adiera gogor batera itzultzen ari garela, zeinean esaten diguten jada ezin dela dena esan. Hori sistemaren indarraren erakusgarri da ala, hain zuzen, haren ahultasunarena?

Uste dut gure belaunaldiak zailtasunak dauzkala gaur-gaurko momentu honetan kokatzeko –egunetan, ordutan, minututan kontatzen diren gauzak gertatzen ari dira–, eta neurri batean izan daiteke ateratzen ari garelako, Jacques Rancièren eran esateko, kontsentsuan oinarritutako demokrazia horretatik. Ideia horrek zioen ez dagoela botere sendoagorik kontsentsuak sortzeko eta inposatzeko gai dena baino, batez ere pentsamolde bat inposatzeko gaitasuna daukalako: adostutakoa bakarrik dela demokratikoa, horrela demokraziaren esparrutik desadostasun guztiak kanporatuz.

Oraingo egoeran, boterea indartzen ari da zuzeneko errepresio-ekintzak eta beraz, baita zentsura klasikoa ere; baita niretzat, hemen gertatzen ari denaren azken esperientziatik behinik behin, zentsuraren alderdi izugarriena ere: autozentsura. Zentsura klasikoaren formak bizi izan gabe, pentsatu ez nuen zerbait zen: zentsura dagoenean, zentsurarik handiena autozentsura dela.

Eta jada hori bizitzen ari gara, gertatzen ari da. Orduan, boterea ahulagoa da ala indartsuagoa? Argi dago biolentoagoa dela bere zereginak bete- tzerako orduan. Eta ez zait gustatzen irakurketa errazetan erortzea, esanez “boterea zenbat eta biolentoago, orduan eta gertuago du heriotza”. Hori askotan esaten dugu, agian gure burua lasai- tzeko: “Trump da AEBen agonia”, “kapitalismo agonikoa kapitalismo estraktibista da”, “estatuen boterea gogortu egiten da zilegitasuna galtzen duenean”... Bai, uste dut hori guztia egia dela, baina ez hori bakarrik. Iruditzen zait diagnostiko autokonplaziente samarra dela, agoniari begira bageunde bezala, hiltzen gaituen bitartean. Zalantzak daukat, ez dakit. Agian indarrez joku- tu dezake indartsua delako. Eta boterea indartsua da. Baliteke kontsentsuzko demokrazia horrek gu ohitu izana egoera kasik administratibo bate- ra, logika erabat despolitizatzaileetara. Eta politi- ka itzultzen denean, itzultzen da subiranotasuna- ren lehia ere, azken finean hori baita: nork erabakitzen du zer? Hori da politikaren funtsez- ko galdera.

Ezkerraren tradizio jakin batzuek M15a edo zapatistak kritikatu izan dituzte gizartea eraldatu nahi izateagatik boterea hartu gabe. Boterea hartzearen gaia berriz pentsatu beharra al daukagu, ikusita nolako lilura pizten duen gauzak aldatu nahi dituztenen artean?

Nire politizazio-esperientzian, garaiagatik eta belaunaldiagatik, boterearen lilura hori ez zen apenas existitzen. Ezker parlamentarioa erabat sistemaren esku zegoen eta, beraz, auzia ez zen boterearekin liluratuta ote zegoen, baizik eta boterearen parte zela, oposizio gisa bazen ere. Eta kritika erradikalagoa egiten genuen mugimenduek, politizazio eraldatzaileagoa proposatzen genuenok, ez genion botereari begiratzen, gure interesetatik guztiz aparte zegoen lurralde hori. *Ciutat Princesa* idaztera eramaneu sorpresaren parte bat izan da Espainiako Estatuan “politika berria” deitu izan zaion hori sortzeko urratsa eman izana, beste leku batzuetan ere

“

Badaude hurbiltasun-harreman batzuk, gakoak direnak demokrazia erradikala eraikitzeko, baina agian hurbiltasun hori jada ez da aurretik ezagutzen genuen bera”

ikusi duguna, Mexikon adibidez: “Erakundeetara itzuli behar da” esatea. Alde batetik, dena lapurtzen ari direlako. Baina, bestetik, 20 urte daramatzagulako ezer aldatzen ez duten iraultzak egiten. Diagnostiko bikoitza dago: alde batetik urgentzia –urgentzia soziala, krisiarengatik, ustelkeriagatik...–, baina bestetik, baita neke moduko bat ere, inpotentzia, mobilizazio konstante batean egotea, zeinak bakarrik adierazten duen zer ez den aldatzen ari.

Saiatzen naiz dikotomian ez erortzen. Ez purismoa –“ez da boterea ukitu behar”, boterea ulertuta zenbait funtzio instituzionaletan jardutea bezala–, baina ezta astotik erortzen ere, mugimenduak bat batean heldutasun politikora iritsi izan balira bezala, azkenean “arduratsu” bihurtu izan balira bezala, zeren “plazak okupatuz eta Lacandona oihanean ez dugu ezer egiten”. Ahal- legintzen naiz pentsatzen Gabriel Ferraterri hartu dizkiodan lerro horien antzera, “ahal izaten ausartzen”. Ideia hori: zer da benetan ahal izaten ausartzea?, atrebitzea gauzak egin ahal izaten, babeslekua bilatu gabe minoritarioaren auto- konplazentzian, baina boterea justifikatu gabe, pentsatu gabe boterea daukanak bakarrik alda ditzakeela gauzak, zeina den zerbait inoiz sinetsi- ko ez dudana, zeren boterea daukanak norma- lean ez baititu gauzak aldatzen, egonkortu eta monopolizatu egiten ditu. Bilatzen dut leku hori, botere batena boterea hustuko duena boterez. Eta uste dut badaudela hori egiteko moduak. Adibidez, gaurko topaketa hau konfederalismo demokratikoari buruz. Boterea desestatalizatze-



ko modu hori, sortuz instituzio batzuk zeinak gai diren beren kabuz antolatzeko beren estatalizazioa, beren botere metaketa... Eta horri buruz mota askotako esperimentuak daude: politika profesionalizatzen ez duten partidu politikoak egitetik hasita, zeinak izango diren zeregin kolektiboak delegatzeko plataformak eta ez ordezkari-tza- eta botere-pilaketarako tresnak. Giza irudimena gai da gauza asko pentsatzeko eta norabide horretan asko pentsatu da. Eta uste dut bidea ildo hori bilatzean dagoela.

Ekintza politikoaren lekuei ematen diezun garrantziak ere arreta eman digu. *Ciutat Princesa*-n auzitan jarri duzu auzoaren zentralitatea ekintza politiko eraldatzaileak gauzatzeko leku gisa. Aipatzen dituzu, adibidez, M15ak nolako arazoak izan zituen plazetatik auzoetara hedatzen saiatu zenean.

Lurraldearen eta ekintza politikoaren arteko harremanak berriz pentsatzea garrantzitsua da?

Gai garrantzitsua da, kontuan izanda geografia politikoak eraldaketa oso azkar eta biolentoa bizitzen ari direla. Indarkeria inmobiliarioa, migrazioak, lanaren prekarizazioa, jada ez dugula uste etxe berean biziko garenik alokairu kontratu batek irauten duena baino gehiago... Hainbeste-hainbeste gauza ari dira gertatzen, jada ez dela aspaldiko urteetan aztertzen ari den fenomeno globala bakarrik, bizi-esperientzia konkretu bat baizik: hurbiltasun eta distantzia harremanak aldatu dira. Alde batetik dago premisa zaharra, demokrazia erradikalarena, demokrazia zuzenarena edo oinarritzko politizazioarena, zeinak postulatzen duen hurbiltasunean dagoela autonomiaren lekua, esperientzia politikoarekin aurrez aurre topo egiteko espazioa; eta beste alde bate-

tik, gure buruari derrigorrez egin beharko geniokeen galdera: non dago gaur egun hurbiltasuna? Oraindik uste dut hurbiltasun-harreman batzuk daudela, gakoak direnak demokrazia erradikala eraiki ahal izateko, baina agian hurbiltasun hori jada ez dago aurreko politizazioen imajinarioek hurbilekotzat ematen zuten horretan.

Auzoak, elementu gisa, borroka-tradizio oso bat du, auzo-mugimenduarena, identitate kolektibo bat. Ikusten dut gaur egun,artzelona bezalako hiri batean, lan politikoaren mapa berria balitz bezala hartzen ari direla: hiria da hiriko auzoak. Eta orduan, José Luis Oyónengandik –urbanista anarkista oso interesgarri bat– berreskuratzen dut “auzotasuna”-ren ideia, ez dena auzoaren berdin-berdina. Auzoa, objektibatzen baduzu, ez dakit gaur egun non dagoen: oinarritzko zerbitzu batzuk egotea, adibidez liburutegi bat edo osasun-etxe bat, beste zerbait da. Auzoa unitate gisa, gutako bakoitzarentzat bizitzeko leku amankomun gisa, josita dago beste espazio eta denbora ugariz. Nola analizatu ahalko genituzke gure auzotasun harremanak gaur, gure bizi-elementu ohikoen elkartrukeak kontuan hartuz, baina gaur egungo bizi formetan? Segur aski aterako litzaizkigukeen mapak oso diferenteak liratekeartzelona batean 1930eko hamarkadan aterako liratekeenekin alderatuz, adibidez. Nire ustez hor badago irtenbide interesgarri bat beste dikotomia batekin puskatzeko, “globala ala lokala”-ren dikotomia; “auzoa ala globalizazioa”; “nire etxe-ko patioa eta nire bizilagunak ala sare globalak”... Distantzia ez denean kontraesankorra hurbiltasunarekin, ikasi dezakegu mapa politikoak marrazten, zeinak ez gaituzten bihurtuko mundu globaleko hiritar abstraktu moduko batzuk, ezta indigena berri batzuk ere, funtsean faltsututa dauden auzoetan bizi direnak.

Azken liburu honetan bertan diozu: “Bazterrean bizitzeak aldi baterako bakarrik leuntzen ditu elkarrekin bizitzearen ohiko oztopoak”. Esaldi hori kritika gisa ulertu dugu, kaleko bizimodutik urrundu eta hirietatik at dauden esperientzia komunalak eraiki-



Mendebaldea existitu ahal izateko, bere buruaren kolonizazio prozesu bat beharrezkoa du eta beraz, ezin dugu mundua deskolonizatu gure burua deskolonizatu gabe”

tzeari egindakoa. 219. LARRUNen Kristin Rossi egin genion elkarrizketan eztabaida hori mahai gainean jarri zuen, baina hain zuzen nabarmenduz, Britainiako ZADa bezalakoek aurrera egin ahal izan dutela fenomeno ez-urbanoak izateari esker. Zer ikas dezakegu hiriaren eta landa-eremuaren arteko tentsio horretatik? Zer aukera eskaintzen ditu espazio bakoitzak eraldaketarako?

Espai en Blanc-en beti erabili izan dugu esaldi bat, honakoa dioena: “Ertzetan hazi nahi dugu marjinalak izan gabe”, eta uste dut galderari erantzuten diola. Sinetsita nago, ZAD bezalako esperientziei dagokienez, badaudela deszentramendurako momentuak, angelu itxura joateko uneak, zeinetan joan zaitezkeen leku batera non ez dagoen jarrita aktualitatearen, espekulazioaren eta gure mundua zeharkatzen duten indarkeria ugarien fokurik. Eta badagoela potentzia bat, ihes lerroarena, beharrezkoa dena osatzen joateko beste mundu horiek, beste borroka-molde horiek eta beste harreman horiek, zeinak aukera ematen diguten piztiaren bihotzetik sartzeko eta ateratzeko.

Esaldi horrekin konstatatu nahi nuena zen ideia bat –ez oso berria–: ez dagoela benetako kanpualderik. Gauza bat dela zure burua ertzean jartzeari, bizitzeko modukoa den bizitza egin ahal izateko eta hortik borrokatu ahal izateko; eta beste gauza bat dela benetan alde egiteko inpossibilitatea, eta ez bakarrik autosufizientzia erradikalean oinarritutako ideietara. Gurekin daramagu oztopoa. *Ciutat Princesa*-n dagoen

“

Badago lan politiko bat egiteke: zapalkuntza egoerak pertzibitzen ikastea, gaur egun askoz lausoagoak baitira lehen baino. Egoera horiek hautematea lortzen badugu, gaitasun handiagoa dugu “ez” esateko”

bizi-balantze honetan –zeintzuk joan diren, zeintzuk ez, zer gertatu da joan direnekin, zer aurkitu dute beste bizimodu horietan...–, badira leungarriak, baina ez dago salbaziorik. Eta uste dut ona dela jakitea ez dagoela, ez apokalipsiaren liluran erortzeko, guztiz kontrakorako baizik, jakiteko zapalkuntzaren esperientzia diferenteak daudela, baina inor ez dagoela salbatuta. Eta inor ez bada go salbatuta, leku bakoitzetik eraiki behar dira dagozkien biziraupen formak, borroka moldeak eta harremanak.

Horrekin lotuta –nondik goaz, nora goaz–, *Nova il-lustraició radical*-en defendatzen duzu “ez” esaten jakiteak daukan potentzia kritikoa. Baina agian gauzak errazagoak ziren, demagun, 70eko hamarkadan? Muntaia-katean lan egiten zuen obreroak bazekien gutxienez nori esan behar zion ezetz, baita nondik joan behar zuen ere. Baina gu baldin bagara gure buruen nagusiak, gure fabrika gure bizitza bera bada... Nori esango diogu ezetz eta nondik joango gara?

Agian derrigortuta gaude dominazio, esplotazio, alienazio eta duintasunik gabeko harremanei buruzko pertzepzio bat edukitzera, egoerari askoz lotuagoa dagoena. Kontua ez da hainbeste patrioiari “ez” esatea, baizik eta “ez” esatea egoera horri. Eta etengabe ari gara umiliazioetatik eta duintasunik ez daukagun egoeretatik pasatzen, agerikoagoak izan ala ez. Badago lan politiko bat egiteke, era berean estetikoa ere badena, pertzepziozkoa, sensoriala, eta da egoera horiek haute-

maten ikastea, askoz lausoagoak baitira. Eta, egoera hautemateko gaitasuna lortzen dugun neurrian, subjektiboki gaitasun handiagoa lortzen dugu ez “bai” ala “ez” esateko, baizik eta noraino. Gauza bakoitza “noraino”. Bizitza prekarizatuetan, etengabeko eraldaketan daudenetan, ezerk barrualde eta kanpoalde argirik ez daukatenetan, gure “ez” horiek “noraino” bihurtzen dira: “Honaino iritsi naiz, ez dut kontratua berrituko”.

Industria turistikoari buruzko ikuspegi indartsu bat eskaintzen duzu: turismoa estraktibismo gisa berrulertzea. Ohituta gaude estraktibismoaz beste termino batzuetan hitz egiten, alegia, baliabide naturalen arpilatze gisa, normalean Hegoalde Globaleko herrialdeetan eta atzean harreman kolonialak daudela. Esan dezakegu gure hirietan bizitzen ari garela esplotazio forma batzuk, aurretik herrialde horietan aplikatu izan direnak?

Gaur goizeko hitzaldietako batean hori esan dute: ez ahaztu kolonialismoa beti dela autokolonialismoa eta autokolonialismoa ez dela inoiz bukatu. Urte hauetan unibertsiteteetan eman dudak ikasgaietako bat Ekialdeko eta Mendebaldeko Filosofia Konparatua izan da eta beti esan izan dut: kolonialismoa ez da inoiz gertatzen Mendebaldetik mundurantz bakarrik. Mendebaldea existitu ahal izateko, bere buruaren kolonizazio prozesu bat beharrezkoa du eta beraz, ezin dugu mundua deskolonizatu gure burua deskolonizatu gabe Mendebalde honetatik, zeina eraiki dugun erdigune bat bezala, zeinaren periferietan beste gauza batzuk gertatzen diren; baina beste gauza horiek hemen ere gertatu izan dira.

Uste dut garrantzitsua dela ohiko estraktibismoa hartzea eta jauzi hau egitea turismo masiboaren industriari aplikatuz, horrela esplotazioaren logikak elkarren segidan jartzen direlako. Badago irudi bat, ispilu moduko bat, zentro-periferia harremana eraiki duena, eta haren arabera, hemendik begirarazten diogu beste lekuetan gertatzen denari, desberdina den zerbait balitz bezala. Horrek, sarritan, oso ezgai bihurtzen gaitu

gure lurraldean bertan gertatzen diren esplotazio-logikak ikusteko, zeinak, egiazki, logika berak diren beste aspektu batzuen pean eta beste maila batzuekin, ez agian intentsitatean, baina bai ondorioetan. Niretzat, industria turistikoa industria estraktiboa dela modu ebidentean ikusteko, aski da estraktibismoa definitzen duten parametroak aplikatzea, eta hori egiten dut *Ciutat Princesa*-ko kapitulu horretan. CCCBn eman nuen hitzaldi baten parte bat da, eta erabateko eskandalua eragin zuen: aurreko udaleko agintari gehienak zeuden, turismo partzuergoak,artzelona marka kudeatzen duten enpresak... Denak geunden, eta noski, ispiluari buelta emate honek, “orain begira diezaiozun gure buruari hemendik” esateak, oso emaitza desberdina ematen du guri buruz. Eta puskatzen du, eta hori zen nire helburua, turismoa justifikatzeko erabiltzen ditugun kolonizatuaren argudioekin: “Izan ere, bestela zer egingo dugu bizitzeko?”, “turismoak inbertsioak ekartzen ditu”... Zapalkuntza egoerari jarri duten edozein lekutan entzuten dituzun argudio berak dira, hau da, “beste norbaitek etorri behar du jarduera ekonomikoa sortzera, nik nire kabuz ez dut balio”. Turismoa justifikatzeko argudioak beti dira mota horretakoak, entzun ditzagun ondo eta ikus dezagun joko hori onartzen dugun. Baina onartzen badugu, ez dezagun pentsatu hau politagoa dela soja zelai bat edo Amerika Erdialdeko edozein larre baino.

Iruditu zaigu turismoari buruzko irakurketa horrek zerikusia daukala lanaren banaketa nazioartean jasaten ari den berrantolatze prozesu batekin. Horri aurre egiteko, balirudike oso tokiko borroka-erreperitorioak garatzeko besterik ez garelako gai izan; baina era berean, gaur goizean bertan zenioen “borroka konkretu bakoitza guztiaren inpugnazioa” dela.

Badu harremana filosofia egiteko modu batekin. Guztia barnebiltzen duten teoria abstraktuak baino, behar duguna zera da: ikustea gauza bakoitzean, borroka bakoitzean, liburu bakoitzean, auzi bakoitzean, zer inplikazio dauden osotasunerantz. Alderantzizko irakurketa da:

“

Zapaldutako edozein lekutan entzuten dituzun argudio berak erabiltzen dira industria turistikoa sustatzeko: ‘beste norbaitek etorri behar du jarduera ekonomikoa sortzera, nik nire kabuz ez dut balio’”

osotasunetik zatira joatea izan da modu bat pentsamendu iraultzailea eta modernoa garatzeko. Hau berriz, kontrako litzateke: konkretutik abiatuta, partikularrean ez geratzea, hori ere izan baita postmodernitateen deribetako bat, baita diferentziaren kontzeptua ulertzeko zenbait modurena ere, edo fragmentuaren ideiarena ere... Gaur egungo pentsamendu kritikoa daukan gaitzetako bat fragmentazio txarra da, partikularismora kondentatzen duela bere burua, mikro gaitetara, eta hori ez da ondo ulertutako mikropolitika. Niretzat, ondo ulertutako mikropolitika da borroka konkretu bakoitzean dena dagoela jokoan: dislokatzen den bizitza bakoitzean, “horrela ezin da bizi” dioen bizitza bakoitzean, birjabetzen dugun alokairu bakoitzean; are, gerra bakoitzean, Kobane hirian, zeinak denboraren linboetan dagoela dirudien... horietan guztietan ehuntzen dira borroka guztiak.

Hor jartzen baldin bagara, gure garaiaren inpotentzia biratzen has daiteke eta lehen aipatzen genuen boterearen kontzeptua ere bai. Zeren, zati bakoitzaren batuketak ez du guztiaren aldatarik ekarriko emaitza gisa, ez dira zatiak batzen, baina bakoitza da gure mundua. Ezin dut mundu osoa nire baitan hartu, gutako inork ezin du mundu osoaz esperientzia egin. Baina gure bizitzaren dimentsioetako bakoitzean integratuta dago munduaren mugak inposatzeko modu bat. Uste dut ikasi behar dela gutako bakoitzaren bizitzetatik horiek ukitzen eta irekitzen, benetan ukitzera iristen garen lekuetan. ■



ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

